

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### GIZA BALIABIDEEN SAILA

#### **Araceli De la Horra Gutierrez Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zuzendari nagusi izendatzea**

2010eko ekainaren 25ean behin betiko onespena eman zion udalbatzak Gasteizko Udalaren Gobernuaren eta Administrazioaren Araudi Organikoari, non arautzen baitira, besteak beste, gobernuaren eta administrazioaren oinarriko mailak, eta horien funtzionamendua, antolaketa eta erregimen juridikoa xedatzen.

Araudi horretan berariaz arautu ziren zuzendaritza-organoak —motak, zereginak eta izendapen-erregimena—, eta, azken horri dagokionez, honela dago jasota 44. artikuluan:

“1. Tokiko Gobernu Batzarrak izendatu nahiz kargutik kenduko ditu koordinatzaile nagusiak eta zuzendari nagusiak nahiz antzeko organoak”

Eta 2. paragrafoan honela jarraitzen du:

“Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 130.3. artikuluan xedatutakoaren arabera izendatu beharko dira”

Aipatutako 130.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, zuzendaritza-organoak doktore, lizentziadun, arkitekto, ingeniari edo baliokidea den titulua eskatzen zaien karrerako funtzionarioen artean izendatzeko beharraz gain, erregimen orokor hori bertan behera uzteko aukera ere jasotzen da, hain zuzen, dagokion lanpostuaren berariazko ezaugarriak aintzat harturik, betiere, gaitasun profesional eta ardura lanpostuetako esperientzia, kudeaketa publiko zein pribatuan, irizpideekin bat etorritik. Gasteizko Udaleko Gobernuaren eta Administrazioaren Araudi Organikoak aukera hori jaso du, beraz, beharrezko denean, zuzendaritza organoen lanpostuak funtzionario ez direnek edo lanpostu horiek betetzeko eskatzen den titulazioa ez dutenek bete ahalko dituzte.

Aurreko paragrafoan azaldutakoarekin bat etorritik, Araceli De la Horra Gutierrez Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zuzendari nagusi izendatzea proposatzen da.

Horrenbestez, Gasteizko Udalaren Gobernuaren eta Administrazioaren Araudi Organikoaren 44. artikulua —Tokiko Gobernu Batzarraren esku uzten baitu zuzendari nagusiak izendatu eta lanpostutik kentzeko eskumena— eta Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 124.4.b) artikulua —Tokiko Gobernua Eraberritzeko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua— xedatutakoarekin bat etorritik, alkateari dagokio udal-administrazioaren zuzendaritza, eta, ondorioz, proposamen hau egiten dio Tokiko Gobernu Batzarrari,

Erabaki-proposamena

Araceli De la Horra Gutierrez Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zuzendari nagusi izendatzea, 2019ko irailaren 20tik aurrerako ondorioekin.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko urriaren 1ean

*Alkatea*

**GORKA URTARAN AGIRRE**